



**TORIBIO ETXEBARRIA IBARBIA**  
**(1887-1968)**

Egilea:

**ANTTON NARBAIZA**

Toribio Etxebarria Eibarren etorri zen mundura. Aita bertakoa zuen eta ama, aldiz, Gasteizkoa. Amak euskaraz ez zekielako Etxebarria txikitatik elebidun izateko bidean jarri zuen.

Txirio kalean —jaio zen kalean bertan— aiton-amonek zuten sutegiaren ondoan, Etxebarria mutikoak eskulangintzaren lehenengo gorabeherak ezagutzeko aukera izan zuen eta, bide batez, orduko lan-munduaren arazoetan murgiltzen joateko. Lanbide desberdinez beterik zegoen kale hartan, Toribiok haietako bat ikasi zuen: «damaskiñua» edo damaskinadua.

Etxebarriaren izaera eta zaletasunei buruz esan dezakegu gizon zuhurra eta orekatua izan genuela esan dezakegu, bere bizitzaren aldirik larrienetan frogatu zigun bezala. Bere zaletasunen artean, liburu artean ez zegoenean, Toribio mendira begira ibili ohi zen: natura maite zuen, landaredia eta mikologia, batez ere.



Toribio Etxebarria Ibarbia (1887-1968)



Toribio Etxebarriaren irudia, bere izeneko kaleari hasiera ematen diona

## ETXEBARRIAREN BIZITZA: ETENGABEKO KONPROMISOA

Toribio Etxebarriaren bizitzak beste hainbat gizakirenak bezala, garai, giro eta egoera oso desberdinak ezagutu zituen. Iraultza industrialak zekartzan aldaketak, euskal sozialismoaren eta nazionalismoaren sorrera, gerra, matxinadak eta abar. Horrenbeste gertakari bizi izan zituen gizon haren jardunbidea guk bi konpromiso mota nagusitan ikusten dugu gizartearen aurrean. Hain zuzen, honako aro hauek bereiztuko ditugu haren gizartearekiko jarreran:



Eibarko Txirio kalea. Toribio Etxebarriaren sorleku

1. Konpromiso sozio-politikoak.  
Zalantzarik gabe zeregin hari denbora eta adore gehien eskaini zion bere bizitzan zehar.
2. Konpromiso euskaltzalea.  
Helduaroan, erbestean, herriminak bultzaturik landu zuena.

## KONPROMISO SOZIO-POLITIKOA

Guk bereiztu dugun aurreneko arlo hau Etxebarriak bizitza osoan zaindu zuela jakinaren gainean egonik ere, haren biografia jarraitzeko baliabide egokiagoa izango delakoan egin dugu. Atalez atal joanez, ikusten dugu Toribioren lana bere herriaren izaerari eta kokapen geografikoari lotuta dagoela. XIX. mende hondarreko Eibarren, orduan oraindik ez da *goitar* eta *behetar*, nolabait esateko, agnostikoak eta eliztarrak, bereizketa itzali. Bere inguruko herriekiko berritasuna hortxe datza: karlistaldietatik datozen ideia liberalak oso errotuak daude herrian. Bada, Eibarko herria Ego erreka apalaren ertzetan izaera berezia lantzen zihonan mundua genuen Toribio jaio zenerako.

Industria jarduerari dagokionez, Etxebarria jaio zen aldian bere jaioterria XIX. mende amaierako herri industriaduna da, armagintzan nagusiki ari diren esku-langilez osatua. Armagintzak herritarrak ez ezik baserriko hainbat seme ere bilduko ditu pistola eta eskopetagintzak behar dituzten edozenbat lan-mota egitera. Lanari loturik bor-bor dabilen gizarte hark ezaugarri berezi batzuk ditu. Horrela, gremio haiek herriko arkupe, peora eta beste leku askotan



Damaskinadua. Toribio Etxebarriaren lehenengo lanbidea

4

barreiatuta zeuden: «akabatzailleak», «barrenarixak», «grabadoreak», «gubilekoak», «kaxagiñak», «limarixak», «lima-pikatzailleak», «txispagiñak», «zulogiñak» eta abar. Ez dago esan beharrik, hainbat sailetan banaturik zegoen langintza txiki hura oso hurbiletik ezagutu zuela Etxebarriak.

Hasieran aipatu dugun damaskinadua Zuloagatarren ekimenari esker oso zabaldua zegoen herrian. Etxebarriak baina, behar hura utzi eta, jarraian, 1912an, Eibarko udaletxean hasiko da lanean bertako idazkaritzan laguntzaile-plazan. Beste hamahiru hautagairen artean bera izango da aukeratua. Adierazgarria da, dena den, hark egiten duen bere buruaren aurkezpena. Guztien artean berak bakarrik aitortzen du euskaraz badakiela. Euskara ez ezik, frantsesa eta «la lengua auxiliar» edo esperanto bera ere bai.

Damaskinadua Etxebarriaren garaian lanbide oso preziatua zen Eibarren. Ez zuen leku gehiegi behar. Langilearen etxean bertan egin zitekeen. Trebetasun handia behar da urrezko edo zilarrezko haritxoak sartuz halako gauza ederretara iristeko




Urtero irabaziko zituen 1.250 pezetak baino ia erakargarriago, bertako lan-ordutegia zitzaien: sei orduko lan-egunak astia ematen baitzion gainerako zaletasunei eusteko.



Etxebarriak bere burua aurkezten du udaletxeko idazkaritzan lan egiteko

Oinarrizko irakaskuntza baino ikasi ez zuen mutil hura, hasteko, etxean zituen liburuak irakurriz bere jakin-mina asetzen ikusten dugu. Gero, bere kontura lortzen zituenak irakurriz kultura handia osatzeko bidean jarri zen. Etxeko uzta amarengandik zetorkion, neskametzan ibilitakoa izan arren, oso irakurtzalea baitzuen; kalekoa, berriz, herriko Centro Obrero-ko bibliotekan zeuden libururik

5



Toribioren gutun baten zatia esperantoz idatzia



Urki auzoko gurutzea.  
Etxebarriak atsegin zuen  
pasealekuetako bat

gehienak oso gazterik irakurriz, bere lan bikain hartan kontatzen digun bezala (*Viaje por el país de los recuerdos*).

Gaztaroko urte haiek, asko entzun eta asko irakurri, Etxebarriaren aipatu berri dugun alderdia sendotuko dute: irakurzaletasuna. Sinesgaitza dirudi inolako ikasketa berezirik ez zuen gizon hark bere autodidaktismoari esker lortu zuen erudizioa. Haren

obra guztian zehar asko nabarmenduko den ñabardura izanen da. Bere liburuetan aipatu eta jorratu zuen egile sail handia ikustea baino ez dago.

Horrela bada, bere jakin beharraren gogoak, munduak planteatzen dituen betiereko galdera lurtar eta jainkotiarren aurrean, Etxebarriak bizitza guztian barrena lagun izanen dituen liburuak eramanen ditu aldean.



Toribio oso arduratua ikusten da gazte-gaztetatik gizartearen baitan gertatzen ziren injustiziez. Eta haren inguruko hausnarketa bezala, garai hartan bere inguruan oraindik gaztea den sozialismoak aurreikusten duen munduaren ikuspegiari bidezkoa ez ezik egiari ere gehien hurbiltzen zaiona dela deritzo. Centro Obrero, Casa del Pueblo-n eta herriko Salon-teatro-n izan ohi ziren hitzaldietan han izango da Etxebarria kanpoko hizlariak zer dioten ezagutzen eta ikasten. Baina, batez ere, herriko tribunetatik pasatuko diren hizlari ezagun askok eragin handia izango dute Toribiorengan. Bera oso gazte zelarik

Pablo Iglesias espainiar sozialismoaren sortzaileetako bat Eibartik pasatu zen, harrezkero, Eibartik bertatik igaro edo bertan geratuko diren, hainbat sozialistak eragina izango dute Etxebarriaren pentsaeran. Baina, guztien artean, Eibarrera bertara bizitzera datozen sozialismoaren figura enblematiko bi aipa ditzakegu: Jose Madinabeitia oñatiar medikua, eta, Tomas Meabe bilbotarra. Etxebarriaren hautua egina dago. Bere ideologia sozialista eta gizatiarra sendotzen joango da. Ordurako Eibarko Gazteria Sozialistan sartua da bertako buru izatera heltzen delarik.



Eibarko ¡Adelante! hamabostekaria. Etxebarriak esaten digunez argitalpenak etenaldi asko izan zuen. Guk ezagutzen dugun aldirik luzeena 1901-1902 urteetakoa da



Ezkerretik bigarrena, bibotedun kapeladuna, Jose Madinabeitia sendagile oñatiarra (1870-1923). Bilbotik Eibarrera etorria sozialismoaren hazia ereitera. Eskuinetik lehenengoa, Akilino Amuategi, zinegotzia Eibarko udalean eta mitinlari sozialista ezaguna euskaraz (1877-1919). Etxebarriaren bizitzan eragin handia izango duten bi pertsonaia



Tuberkulosiak bere herio-sega gogor jotzen zuen garaian *Jardin de Convalecientes* deitu zen atsedenekua sortzen Eibarren asko lagundu zuen Jose Madinabeitiak



Eibarko Armeria Eskola. 1913an eraikia. Eibartar gazteak industriagintzarako prestatzen eginkizun garrantzitsua bete zuten. Arratsalderoko ikasketen bidez gazteei lana utzi ondoren euren prestakuntza teknikoa osatzeko aukera ematen zien. Herrian ez ezik inguru zabalean ere oihartzun handia izan zuen

## IDEOLOGIATIK PRAKTIKOTASUNERA

Baina xx. mende hasierako «biharginen» herri hark aurrera joko bazuen, era berean, beharrezkoa zuen industriaren azpiegitura sendoa, ikasketetatik hasita: irakaskuntza tekniko arautua behar zuten han-hemenka sakabanaturik lantegiz lantegi ziharduten gaztetxo haiek. 1913an inauguratu zen Armeria Eskola hutsune hura betetzera zetorren. Dena dela, eskola berriak nagusiegi harrapatu zuen gure pertsonaia.

Baina bere konpromiso sozialak ez dio non jaioa den ahanzten uzten: 1918an *La Liga de las Naciones y el problema vasco* liburuxka argitaratu zuen. Bertan iberiar federazio baten barruan ikusten zuen Euskal Herria.



J. Arizmendiarieta. Torbio Etxebarriarekin harreman idatziak izan zituen. Kooperatiba-munduak nola antolatu behar zituen lan-harremanak, gizakiaren garrantzia lan-esparruaren ardatz bezala, eta beste hainbat gai ukitu zituzten

## EKIMEN GARAIA

Toribioren ardurak, esan dugu berriki, beti gizartearen aldeko hobekuntzak aurkitu nahiaren osagarri garbia du: eguneroko arazoei aurre behar zaie. Alde horretatik, pragmatismorik zorrotzena hastapen, Toribiok egunero gauzatuz joan daitezkeen utopien alde borrokatu nahi du. xx. mende hasierako lan-giro hartan armagintzak aldian aldiko kinka bizi du. Lana izan, bada, baina oso


gorabeheratsua. Bere kontura ari diren armagin txikiek prezioak ezin altxatu dihardute: ekoizle handiek eta saltzaileek ezartzen dizkieten prezioetan saldu beharra izaten baitute. Horrela sortuko zen xix. mende amaieran Toribiok ekimen «sozietarioa» deitzen duena. Alegia, bere kontura ziharduten langile bakandu haien batasuna lortu bi helburu nagusirekin: lehenengoa, prezioei eustea, eta, bigarrenik, euren lanak hainbat arinen kobratzea.



ALFA enpresa. Atzean Isasiko Eliza eta Armeria Eskola. Etxebarriak eta beste hainbat eibartarrek asmatu egin zuten euren erronkarekin garaiko industria-jardueran, armagintza josteko makinaren ekoizpenaz osatu baitzuten

Baina merkatuak Eibar eta bere ingurua krisien bidez oso maiz inarosten zuen langintza enblematiko hari ezegonkortasuna ekartzen ziolarik, beste aukera batzuk hausnartzen hasi beharra zegoen. Gauzak horrela, Etxebarriak eta beste zenbait eibartarrek, armagintzaren osagarri aurkituko duten industria-mota berri hura josteko makinena izango da. Aurrerantzean, beraz, armagintzaren monokultiboa, nolabait adierazteko, saihestu eta eibartarrei beste langintza berri bat ekarriko die. Erabaki hura baina, I. Gerra Handiak sortarazi zuen krisiaren ondoren hartu zuten. Aurretik, greba luze batek 1920an eraikiko duten ALFA lantegiaren sortzea azkartuko du.

Armagin izatetik josteko makina-egile izatera pasatuko den hasierako ALFA kooperatiba hura eredu izango da hainbat gauzagarrik. Aipagarriak dira sortaraziko zituen lan-harremanak, soldata berdinduak, bai eta gainerako zerbitzuak: ekonomatoa, biblioteka, udalekua langileentzako eta abar. Filosofia hark, osotasunezko aurreikuspenak, kutsu berri eta aurreratzailea eskainiko zion lantegiari. Bestalde, udaletxeko lana amaitu ondoren eta ezer kobratu gabe kooperatibaren ardura hartua zuen Etxebarriak. Gero, 30eko hamarkadan, egitasmoa gauzatua zutela ikusirik, jendaurrean hitz egitearen lagun ez bazen ere, zenbait hitzaldiren bidez ALFAren betekizunak esplikatzeko jardun zuen han-hemenka.



## **POLITIKAGINTZAREN ARGI-ILUNAK**

1931n, monarkia erori zelarik, eta egoera politikoa lagun, irudi zuen urte oparoak ezagutuko zituztela Etxebarriak eta bere lagunak ekimenak.

Eibarren Estatuan lehenengo aldiz apirilaren 14ko goizaldean, oraindik beste inork ez duelarik ezer erabaki, Espainiako II. Errepublika aldarrikatzen da udaletxeko balkoian. Euforia

garaiak dira, oso laburrak tamalez, izan ere, askatasun formalak berrezartzera datorren sistema berriak arazo ugari ezagutuko ditu bere barruan eta, batez ere, kanpotik egiten zaizkion erasoengatik.

Espainiako Estatuan ezkerreko agintzen jarri zelarik, Errepublikaren gobernuan kargu politikoa eman zioten Etxebarriari. Estatuaren ordezkari izendatuko dute CAMPSA petrolioaren monopolioarekin harremanak finkatzeko.

12



Untzaga Plaza eta udaletxea aurrez aurre. Izen aldaketa egiteko garaian. Plaza de la República ezarri zitzaion. Eibarko historian leku enblematikoa. Errepublika lehenengo aldiz aldarrikatu zen tokia

1933an, hauteskunde ostean eskuina agintzen jarriko zen Biurteko Beltza deitu izan zen aro gogor bati ekinez. Toribioren lana Madril aldean etenik geratuko da. Are okerrago, gertakariak guztiz kontrako norabidean joango dira ezkerraren eta Etxebarriaren ideologiaren ikuspegitik. Gauzak horrela, 1934an, Espainiako ezkerraren sektore batek, Errepublikan onartzen ez duen CEDA ultraeskuineko partidua gobernuan sartuko dela iragartzen delarik, matxinada bultzatuko du estatuan. Botere hurbila hartzea da helburu. Asturiasko meatzariak aurrenik, Kantauri aldeko industriguneak gero, estatuan barrena istiluak izango dira urrian zehar, Urriko Iraultza deitu izan den hilabete odoltsuari izena emanez. Eibarren, noski, armak erraz atzeman zitezkeen bertako arma-biltegiak baliatuz. Ezkerreko ekintzaileek Herriko Goardia Zibilen kuartelari eraso egingo diote. Errepublikak bere burua defendatzeko propio sorturiko armada langileen kontra joko du: asaltoko goardiak, armada bera, ordena ezartzera abiatuko dira. Istilu haietan Etxebarriak, odol gehiago isur ez dadin —zazpi izan baitziren hilak manifestari eta ordena-zaintzaileen artean—, bandera zuria haizaratuz, bakea eskainiko die bere barrikadetatik Estatuko indar armatuei.

Atxilotuak Iruñeko kartzelara eramango dituzte, Etxebarria bera barne. Ia urte t'erdi igaroko du bertan, beste 143 eibartarrekin batera, harik eta Frente Popular koalizioak ekarriko duen amnistiak —1936ko otsaileko hauteskundeak irabazi ondoren— denak kaleratuko dituen arte.



Etxebarriak Mitxelenarekin izan zuen epistolarioaren lagin bat. Errenteriarra bere hiztegi mardula osatzen ari zela, Toribiorekin izan zituen harremanetan harriturik geratu omen zen Etxebarriak zuen lexiko bildumarekin

Etxebarriaren nortasuna justiziazale bezain bakezalea da. Horregatik indarkeria ez du aintzat hartuko. Gizakien arteko konponezinak, soil-soilik, eztabaidak eta negoziazioak ebatz ditzake. Beti ere lagun hurkoarenganako begirunea erakutsiz. Hori dela eta, Espainian barrena mendearen lehen herenean zehar armen bidez egindako hainbat atentatu, eraso eta hilketa ikusten

dituelarik, Eibarko paradoxa erakutsiko du: milaka eta milaka pistola egiten den arren, gure herrian, behargin-ugazabaren arteko harremana maiz estuegia eta istilutsua gerta bazitekeen ere, ez zen inolako eraso armaturik gertatzen, esan izango du Etxebarriak.

Iruñeko kartzelaren egonaldiak hausnarketa egiteko garaia ematen dio berriro. Egondia hura gizakiaren betiereko galdekizunak burura ekartzeko erabiliko du. Ordukoa du aipaturik geratu den *Metafísica a Urcola* saiakera, berarekin itxialdian egon zen herritar bati eskainia.



Unamuno eta Indalecio Prieto Eibarren. Unamunoren kasuan, euskarari iragarri zion etorkizun tristeaz hainbat iritzi kontrajarri sortarazi zuen filosofo eta pentsalaria. Eibarren sarritan izan zen hitzaldiak eskaintzen





Tomas Meaberen omenez Kalamua mendiaren maldan eraikitako aterpetxea. «Osasuna eta Kultura» lemapean jaso, jende asko igotzen zen bertara. 1934ko Iraultzan asalto goardiek nahikoa hondatu zuten. 1936ko Gerrak txikituta utzi zuten

15

Egunerokotasun gordinera itzuliz, harrezkeroko gertakariak behin betiko baldintzatuko dute Etxebarria eta bere garaiko euskaldunen etorkizuna. 1936ko Gerra sarraski handia bihurtuko da bertan galtzaile suertatuko direnentzat. Gerrak Espainiako Mediterraneo aldean lanean harrapatzen du. Familia hartu eta erbestea: mugaz handik Bordelera iritsiko dira eta bertatik itsasontziz Ameriketara.

Erbestea, izan litekeenik onena ere, beti izango da norbanakoaren

askatasunari egiten zaion eraso izugarria. Han, Venezuelan, Etxebarria klasikoak irakurtzen segituko du buru-belarri. Eta, batez ere —paradoxatzat jo baliteke ere, Toribiok bizi izan zuen egoera ezaguturik—, Ebanjelioak eta Biblia.

Garaikide izan zituen hainbat pertsonaia ospetsurekin izan zuen harremanik. Bizitza hain oparoa ezagutu zuen gure pertsonaiak bere idatzien lekukoa utzi digu. Haren kezkek hobeto ezagutzeko aukera dugu idatzi zituen gutunen bidez:

J. Arizmendiarrieta, Koldo Mitxelena, Karlos Santamaria, Indalecio Prieto eta beste edozenbat intelektualek elkarren kezken berri izan zuten (azken honekin izan zituenak liburu moduan argitaratuta daude: *Epistolario*.

*T. Echevarria-Indalecio Prieto*).

Toribiok, haiek eta bera ere arduratzen zituen gaien inguruan aritu zen: Euskal Herriko industriaren garapena, politikagintza, fedearen eta konpromiso etikoaren arteko lotura, euskararen bilakaera; esan daiteke, erbestearen urruntasunak Etxebarriari interesatzen zitzaion errealitatearen ezagutze handiagoa eragotzi bazion ere, eibartarra jakinaren gainean zegoela bere jaioterrian eta munduan barrena gertatzen ziren berriez.



Herriko Casa del Pueblo Errepublikaldian, sozialisten bilgunea

Hain zuzen, J. Arizmendiarrieta Arrasateko kooperatiben sortzailearekin izan zuen lotura azpimarra dezagun, hark Eibarko iraganeko ALFA kooperatibaren esperientziaren berri jakin nahi baitzuen, Arrasateko bizipenekin nolabait alderatzeko eta, ahal zuen neurrian, aberasteko.

Zuzentasun hark, Etxebarriaren etika, politikan zein lan-harremanen munduan eredugarri bihurtuko du. Beste eibartar ezagun baten hitzak bere eginez (Akilino Amuategi *Txikillana* eibartar mitinlari sozialista euskaldunarenak), aurkitua zuen korrupzioaren kontrako formula. Lantoki garrantzitsu baten buruan nor jar, galderari, honela erantzuten baitzion *Txikillana*-k: «pertonarik fiñena, baina lapur haundiña moduan zaindu».

Etxebarriarengan, beraz, pertsona pragmatikoa eta era berean utopia baztertzen ez zuen munduko biztanlearen ortzemuga uztartzen dira. Hori bai, eztabaida orotatik alferrikako hitz hutsalak baztertuz. Berak era irrigarri batez esaten zuen bezala: «Zer da filosofixia? batek esaten eban letz, luzetu barriketia eta inoiz alkar aittu ez».

## GAZTAROA

Bere bizitzaren bide nagusia xx. mendean egitera datorren eibartar hari, beste euskaldun askori bezala, ez datorkio mende-hasiera gozoa.

Toribio Etxebarriaren gaztaroan kokatzen garelarik euskararen patua, beste hainbat hizkuntza minorizaturena bezalaxe, ez da samurra izango. Are gehiago, hainbat aldaketa sozialen zurrunbiloan izugarri zailduko da haren etorkizuna. Historiaren korronteak, inoiz baino gehiago xx. mende hastapen hartan, ez doaz euskararen bidean. Hasteko,

1901ean, Euskal Herrian zein Espainian itzal handia hartzen ari den Migel Unamuno bilbotarra bere herriko Lore-Jokoetan euskaldunok euskararen inolako premiarik ez dugula esatera datorkigu. Hurrengo urtean, oraingoan idatziz, «la cuestión del vascuence» artikulua emango du argitara. Urte berean Romanones kondearen agintepean dagoen gobernuak agertarazten duen Errege Dekretuak debeku harrigarriak dakartza; hots, 1902ko azaroaren 21eko dekretu hark euskaraz ematen zen dotrina bera ere gaztelaniaz ematera behartzen ditu maisu-maistrak.

17



Eibarko hiria 1936ko Gerrak hondatua. Bidebarrieta, Barrenkale eta Arrandikale. Gerra Zibilak eten gogorra bezain doilorra ekarri zuen hainbat euskaldunentzat. Behin betikoa askorentzat

Esan izan da Unamunok euskarari egin zion diagnosiak —alegia, «kultur hizkuntza bilakatu ezin den herri-hizkera da»—, kontrako indarra sortaraziko zuela, hau da, hasierako nazionalista haien sua bizitzea, hauspoa ematea. Ez da hori, azalean behintzat, Eibarren gertatuko non Toribio oraindik gazte delarik bertako sozialismoaren zenbait buruzagik, unibertsaltasun gaizki ulertu batek astinduak, euskarari herri-hizkeraren estatus hura baino maila handiagorik ez dioten iritziko. Gordetzen den 1901-1902 bitarteko herriko aldizkaria zen *Adelante* dugu lekuko.



Santiago Arizmendi. J. Arizmendiarietaren lehengusua, Etxebarriaren laguna eta esperantoaren bultzatzaile sutsua. Gerra ostean Eibarko Club Deportivo-n klaseak ematen



Santiago Arizmendi ikasle batekin

Indalezio Prieto Eibarko  
udaletxeko balkoian.  
Bizkaitar politiko sozialistak  
harreman handia izan zuen  
Etxebarriarekin  
Errepublikak  
-garaian zein erbestean



Euskarari zenbait esparru intelektualetan egiten zitzaion gutxiespenak, unibertsaltasunaren laudorioa zekarren berarekin, arestian ikusi dugun bezala, eta, ia beti, munduan zebiltzan hizkuntza nagusien aldeko diskurtsoan gauzatzen zen. Bien bitartean Etxebarria bezalakoek ahalegin handiz eta etekin ez horrenbestez gizakien arteko elkar aditzea bilatzen zuten laborategiko hizkuntza zen esperantoa jendaurrean ezagutaraziz. Zertzelada hark eibartar gazte haien kezka unibertsalista erakusten digu. Giro hartan bizi izan zituen, beraz, Etxebarriak bere nortasuna finkatuko zuten urteak. Egia da berak, bere euskarari buruzko

hausnarketan, hizkuntza herri-hizkeraren estatusa baino askoz gorago ikusten duenik ez digula adierazten. Baina euskara hain darama barruan, hain du etxekoa non beste okerreko juzkurik egin aurretik bi gauza aintzat hartu behar ditugun. Lehenik, Etxebarria bere garaian kokatu, eta, bigarrenik, ikusi eta aztertu garaikide izan zituen ustezko euskaltzaleek zer nolako ekarpena egin zioten euskarari. Izan ere, Toribiok fedea bere lanen bitartez ederki frogatua zuen. Horregatik, esanak esan, hark bere euskaltzaleetasuna gorde egingo du inolako hastandurarik gabe.

## HELDUAROA ETA ERBESTALDIA

Aurrerago aipatu ditugun 1936 urte arteko garai zail eta maiz iskanbilatsuak ez ziren, egia esan, egokienak kulturgintza sakon eta egokia abiarazteko. Itzulerarik gabeko bidaiak bilakatuko zen Venezuelako egonaldian, Toribiok, zenbait libururen bitartez, bere irakurketen interpretazioa ez ezik ezagutu zituen hainbat pertsonaia eta egoera desberdinen zirrara ere urreratuko zizkigun. Horrela sortu ziren, aipagarrienak: *De mi correspondencia*. *La experiencia socialista en España vista desde mi pueblo*, eta *Recordando la guerra*. *Diario de viaje de un refugiado español*. Bere gizakiaren eta geroaren inguruko hausnarketa ahantzi gabe, aipaturik geratu den *Metafísica a Urkola*, eta bere Ebanjelioei buruzko gogoeta: *El hijo del hombre*. *Vida pública de Jesús de Nazareth*, saiakera.


Baina atzera gabeko Venezuelako erbestek Toribiorengan herrimina eta, batez ere, euskaltzaletasuna berpizteko balio izango du. Horrela, gaztarorantzako itzulaldia balitz bezala, Etxebarriak orduko lekukoak eta bizipenak identifikatzeko biderik egokiena hautatuko du: euskara. Bere emaztearen laguntza oparoz, oroitzapenen makina abian jarriko du eta, haren ondorioz, liburu moduan





Hendaian 1959an. Ideologia desberdineko eibartarrak solasean. Hemen Etxebarria bi euskaltzale eibartarren erdian ageri da: Luis Ormaetxea eta Edorta Alberdi

argitaratuko dituen zenbait lan etorriko dira. Horrela sortuko dira hainbat eta hainbat folioren ondorio bezala, berak euskaraz idatziko dituen liburu biak, hurrenez hurren: *Ibiltarixana* eta *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Beste edozenbat orri argia noiz ikusiko geratuko dira.

Baina euskarari ekarpen bikaina egingo dion aldetik, bigarren aipatu duguna gailenduko genuke. Nahiz eta, berak aitortzen digunez, erbesteko bidean ordurarte bildutako lana galdu, Lexikoian gero hiztegiak erabiliko duten hitz eta esapide andana oparoa ageri da. Esaterako, Koldo Mitxelenak bere *Orotariko Euskal Hiztegia*-n etengabeko aipamenak jasoko ditu Etxebarriaren Lexikoitik.



Toribioren gutuna erbestetik bere aspaldiko lagunei



Mende hasierako gutun ireki bat Eibarko euskarari. Hauteskunde-garaian «kaleko» beharginiek baserrikoei botoa eskatzeko diete, elkarren artean indarra egiteko jauntxoaren kontra



Toribio Etxebarriaren libururik esanguratsuenen azalak: *Viaje por el país de los recuerdos*, Eibarko oroitzen samurrak biltzen ditu bertan. *Ibiltarixanak*, erbestetik hitz lauz eta prosaz idatzitako lan atsegina, eta, azkenik, *Lexicon* ospetsua Eibarko euskararen altxor bikaina

Hasiera batean, bere herri-hizkeraren oroitzapen soila izan nahi duen liburua, azkenean hizkerari egiten zaion omenaldia ez ezik haren balioestea ere bilakatuko da. Bere Eibarko «berbeta internazionala» hiri-euskara baten lekuko ederra da, arestian aipatu ditugun langileek, besteak beste, erabiltzen zutena.

Izan ere, izenburuari begiraturik herri-hizkera baten bilduma soila izateko sortu zuen liburua, bere egileak zuen helburu apala baino askoz gehiago izango da: galdurik dauden lanbide eta bizibide berezi askoren altxor preziatua.

Lexikoia mirestera haren hitz eta esaera aberatsen bildumak bagaramatza, *Ibiltarixanak*-en, berriz, lehenengoan agertzen diren pertsonaia askoren biografia eta pasadizoak kontatzen dira era errimatuan. Esan daiteke, neurri handi batean erdarazko *Viaje*-n ageri diren pertsonaiak gogora ekartzen dizkigula. Herri mailako heroiak dira, Etxebarriak xera eta maitasun berezi batekin izendatzen dituen pertsonaiak. Horrekin batera, hark Ameriketan eta munduan zehar ikusi eta bizitutako esperientziak jakinarazten dizkigu. Halaber, liburuan bertan, hainbat itzulpen aurkituko ditugu. Testamentu Zaharreko zenbait pasarte ageri dira

liburuan, baita zenbait klasikoren itzulpenak ere —*Heptameron*, *Canterbury*-ko ipuinak— bere herriko euskarari jarriak.

Toribioren pentsamenduan gizatasuna da nagusi. Bere zuzentasunak etsaiei beraiei ere begirunea izatea eskatzen dio. Salbuespen batekin: Franco jenerala. Hendaiatik, ia hogeita hamar urte etorri gabe, haren erruz jasan behar izan dutena gogoratu, honela deitzen du diktadorea bere herriko euskarari: «muga horren ostian dagon irutxurlari alua».



1936ko Gerrak hondamendia ekarri zuen hainbat eta hainbat fede oneko hiritarrentzat. Hemen, gerra amaitu eta laster, ikusten ditugu irabazleak Konstituzio-plazari «Plaza de los Mártires de la Nueva España» ezartzen



Bere lanen lagin bezala,  
Etxebarriaren argitaratu gabekoen  
artean ondoko bertsoak hautatu  
ditugu. Lehenengo, hitz neurtu  
xumeen bidez, Toribiok bere gazte-  
-denbora dakar oroimenera: burutu  
zitezkeen proiektuak baina gero  
bizitzaren patuak bestela agindurik  
bete ezineko nahia geratu direnak.  
Horregatik hitz esanguratsu haiek:  
«Ura joanda gero presia». Gaur  
egungo ortografian emango ditugu:


### Ura joanda gero presia

A, baneu jakin gaztetan  
nik gaur dakiran guztia  
edo zar, sasoi honetan,  
baneu gaztetako adolia!

Baina, mundu dan ezkeru,  
Betiko zorigaiztua,  
Uraldixa juanda gero  
Presi' ein urandakua

Aukerak be mundu honetan  
Uraldixa juan ezkerik.  
Izan banitu gaztetan  
Dituranak behin zarturik!

23



Eibarko Urkuzuko (Urkizu) iturria. Eibarko beste leku  
enblematiko bat. «Bixamuna» pasatzeko ur  
«mirakuloso». Makina bat errondariren bidegurutzea

Azkenik, beste jite bateko bertsoekin amaituko dugu. Izan ere, bizitzan zehar hainbat aldiz historiaren lerroetan letra larriz idazten diren hitzei aurre egin behar hark uzten zion Etxebarriari umorerako astirik. Jarraian erakusten ditugun bertso ineditu eta atsegin hauek bezala:

24



Arrateko Santutegia. Eibartarengan, edozein koloretakoak izanik ere, oroimenean ageri da beti Arrate. Toribiok berak «Arratetikuen hizketia» deitzen zion maiz bere Eibarko euskarari

## Apurrak

Zadarikuak tabernan  
(*Zahagikoak*, alegia)  
Banau ni biztutzen,  
Zure ezpanetako arduak  
Bittan nau mozkortzen.

Pentsatzen bazenduan  
Triste ni ikustia,  
Kontu'n ez zendualako  
Goiko tabernia.

Taberni' eta jokua  
Ta gainera gonak  
Nere senar jatorran  
Kondiziño onak!

Ez dau dakiran batek  
Saltzeko andria,  
Andrian taberna barik  
Nola alper bizi ha?

Jan da eran zan artian  
Dana farra-farra  
Kontua eiterakuan  
Hasarri 'ta abarra

Iltzen naizenerako  
Eiñ dot testamentu  
Nere narru' deixela  
Zadari bihurtu.

Nahiz da Infarnuan beste  
keia eta orrua,  
Aldatseko tabernan  
Neretzat zerua

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Eibarko Udal Artxiboa*
- *Ego Ibarra Fondoa*
- *Gipuzkoako Agiritegi Orokorra*
- *Indalezio Ojanguren Fondoa*
- *Castrillo Ortuosto Fondoa*
- *Imanol Olazabal argizkilaria*
- *Karlis Argazki-Foto*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 1999ko abendua

Ale-kopurua: 2.000

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: RGM, S.A.  
Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-1452-X (Obra osoa)  
84-457-1454-6

L.G.: BI - 2.684-99

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística